



## **EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK (2004KO EKAINA)**

### **AZTERKETARIA**

**LEHEN DEITURA .....**

**BIGARREN DEITURA .....**

**IZENA .....**

**NORTASUN AGIRIA .....**

**EGUNA: 2004ko ekainaren ...a**



## EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK (2004KO EKAINA)

### 1. ARIKETA: AUKERA ANITZEKO GALDERAK

**Honako galdera hauetako bakoitzak lau erantzun ditu aukeran. Aukera ezazu erantzun zuzen eta egokiena, eta amaieran dagoen taulan idatz ezazu erantzun horri dagokion letra. Erantzun okerrenetatik ez da punturik kenduko.**

1. Gure kotxe zaharrarekin mendate hori igotzeko \_\_\_\_\_
  - a) komeriak izan genituen.
  - b) latzak egin behar izan genituen.
  - c) bultzakadak egin behar izan genituen.
  - d) moreak pasatu genituen.
  
2. Alderdi asko aurkeztu dira \_\_\_\_\_ 75 eserlekuetarako.
  - a) legegizonen
  - b) Biltokiko
  - c) Biltzarkidetzako
  - d) Legebiltzarreko
  
3. Zeini egokitzen zaio ondoen *geldo* hitza?
  - a) Makal dabilenari.
  - b) Gaixotasun sendaezina duenari.
  - c) Izate motela duenari.
  - d) Aurpegi zurbilekoari.
  
4. Hurrengoetatik, zeinek ez du adierazten gorputz osoaren mugimendu bat?
  - a) Arrastaka.
  - b) Korrika.
  - c) Jauzika.
  - d) Garrasika.
  
5. Georgiak baketze-tropak bidaltzeko eskatu zion \_\_\_\_\_
  - a) Nazio Bakunen Elkarteari.
  - b) Nazio Bateratzaileen Erakundeari.
  - c) Nazio Batuen Erakundeari.
  - d) Nazio Batasunerako Elkarteari.
  
6. "Gogaitu egin nau bere hitz-jarioak". Zer esan nahi du?"
  - a) Aspertu egin nauela.
  - b) Liluratu egin nauela.
  - c) Arreta sortu duela nigan.
  - d) Gogoz entzun diodala.



## EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK (2004KO EKAINA)

7. Pentsamendu txarrak \_\_\_\_\_ ahaleginak egin zituen.
  - a) zuritzeko
  - b) uxatzeko
  - c) atertzeko
  - d) garbitzeko
  
8. "(Tren geltokian). Txartel bat, mesedez, Altsasura; \_\_\_\_\_"
  - a) joaterako eta itzultzerako.
  - b) joan-etorrikoa.
  - c) joan eta etorri egitekoa.
  - d) joate-etortzeko.
  
9. Norbaiti zerbaiten erantzukizuna eskatu:
  - a) itaunketa egin.
  - b) kargu hartu.
  - c) lepoa jokatu
  - d) kontu eman
  
10. Zerrenda hauetatik, zein da tokiz kanpoko hitz bat duena?
  - a) iragan, igaro, iragarri.
  - b) ildo, bidezidor, bidea
  - c) txima, adatsa, biloa.
  - d) iseka, trufa, irria.
  
11. Nik ez dizuet trabarik jarriko; \_\_\_\_\_, zeuek duzue erantzukizuna.
  - a) baino
  - b) hala baina
  - c) aitzitik
  - d) nolana ere
  
12. Etxe hauek \_\_\_\_\_ bukatuko dituztela uste duzu?
  - a) Noiz arte.
  - b) Noizko.
  - c) Noizerako.
  - d) Noizkorako.
  
13. "Nire adineko guztiak joango dira; \_\_\_\_\_."
  - a) ni, aldiz, bai.
  - b) ere ni.
  - c) ni ere ez.
  - d) ni, berriz, ez.



## EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK (2004KO EKAINA)

14. Jakinduria handiaren jabe izan nahi badute, irakur \_\_\_\_\_ filosofia-liburuak.
  - a) ditzaten.
  - b) bezate.
  - c) ditzala.
  - d) ditzatela.
  
15. Gabonak izan ez arren, pozik jango \_\_\_\_\_ gaztainak bihar.
  - a) genituen
  - b) genitzan
  - c) genituzke
  - d) genitzake
  
16. Goizaldean, mendi gailurretatik \_\_\_\_\_.
  - a) eraso zieten.
  - b) eraso zituzten.
  - c) erasotu zitzairen.
  - d) erasotu zieten.
  
17. Presoak bidalitako eskutitzek berri txarrak \_\_\_\_\_.
  - a) dakarkigute.
  - b) zekarzkiguten.
  - c) zekarten.
  - d) gindekartzaten.
  
18. Elkorok Eugiren aurkako partidari \_\_\_\_\_ ederra eskaini zuen.
  - a) erakusle
  - b) erakusaldi
  - c) erakustaldi
  - d) erakustegi
  
19. "Kopetilun zegoen buruzagia, eta kopetilun, halaber, bere jarraitzaile sutsuak." Zer adierazi nahi da esaldi horrekin?
  - a) Buruzagia kopetilun zegoen eta, halabeharrez, baita jarraitzaileak ere.
  - b) Buruzagia ezik, jarraitzaileak kopetilun zeudela.
  - c) Jarraitzaileak ez zeudela kopetilun, buruzagia baizik.
  - d) Buruzagia ez ezik jarraitzaileak ere kopetilun zeudela.
  
20. Ez dago gaizki idazlan hori baina idatz ezazu \_\_\_\_\_, txukunago jartzeko.
  - a) dena dela
  - b) atzera ere
  - c) hain zuzen
  - d) izan ere



## EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK (2004KO EKAINA)

21. Euroa erabiltzen hasi eta bi hilabete baino ez \_\_\_\_\_ genituen erabiliko lehengo diru zaharrak.
- ote
  - al
  - ohi
  - omen
22. Ezin gaitetzke legea noiz aterako \_\_\_\_\_ zain egon.
- den
  - denaren
  - deneko
  - delaren
23. Etxera sartu \_\_\_\_\_ konturatu nintzen norbait ibilia zela, lapurretan edo.
- ahala
  - orduko
  - heinean
  - aurrean
24. Zerrenda bat argitaratu berri da, lanpostu guztiak banan-banan zehazten \_\_\_\_\_ .
- dituela
  - dituelarik
  - dituen
  - dituena
25. Gogotik bota du euria gaur, baina iluntze partean \_\_\_\_\_ eta ibilaldi ederra egin dugu.
- atertu zaigu
  - atertu da
  - atertu egin du
  - atertu egin da
26. Harria airera botatzen baduzu, alde egizu berehala harria buru gainera eror ez \_\_\_\_\_ .
- diezazun
  - dakizun
  - zaizun
  - zaitzan



## EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK (2004KO EKAINA)

27. Erraza da etxe berria erostea pentsatzea, baina dirua behar da horretarako, eta nik ez dut halakorik. Norbaitek emango \_\_\_\_\_
- balit!
  - balidake!
  - lidake!
  - bazidan!
28. Ez da komeni kafea \_\_\_\_\_ hartzea, hortzak osasuntsu izan nahi badira.
- azukrearekin
  - azukrez
  - azukreaz
  - azukreataz
29. Lantegi biak daude \_\_\_\_\_ hurbil samar eta egoera horrek harremana biziki errazten du.
- elkarretik
  - elkarrengandik
  - elkarren
  - bata bestearen
30. Bulegariak dirurik ez eta \_\_\_\_\_ ordaindu digu gaurko bazkaria.
- zuzendari berak
  - zuzendaria berak
  - zuzendariak berak
  - zuzendari berberak
31. Lau hauetako zein da esaldi zuzena?
- Aizkorriko arkaitzaren ondoan hauntzak zebiltzan larrean.
  - Aizkorriko arkaitzaren hondoan ahuntzak zebiltzan larrean.
  - Aizkorriko harkaitzaren ondoan ahuntzak zebiltzan larrean.
  - Aizkorriko harkaitzaren hondoan hauntzak zebiltzan larrean.
32. Zein da zuzena?
- Den denak ez ditu ekarri; batzuk aaztu egin zaizkio.
  - Den-denak ez ditu ekarri; batzuk ahaztu egin zaizkio.
  - Den denak ez ditu ekarri; batzuek aztu egin zaizkio.
  - Den-denak ez ditu ekarri; batzuk ahastu egin zaizkio.
33. Zein dago gaizki?
- noranahi
  - non nahi
  - non-nahi
  - nonahi



## EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK (2004KO EKAINA)

34. Andonik \_\_\_\_\_ txori bat egin du.  
a) papelezko  
b) paperazko  
c) paperezko  
d) papelazko
35. Gizon hura ere \_\_\_\_\_ bilakatu zen oihanean.  
a) otsoan  
b) otsotzat  
c) otsoa  
d) otso
36. Non da Beatriz?  
a) Joan behar zen.  
b) Joan behar zuen.  
c) Joan egin da.  
d) Joan egin du.
37. Ez dut uste hain eguraldi onik egiten duenik, baina, \_\_\_\_\_ onera egiteko itxura dakar.  
a) halatan  
b) halaber  
c) dena dela  
d) baita ere
38. Zein da zuzena?  
a) Dendari horrek bezeroak beti aurpegira begiratzen ditu.  
b) Egunean hamar ordu lanean emateak neke handia suposatzen du.  
c) Lan finkoa izateak bidaiak egitea baimentzen dit.  
d) Etxe aurreko tabernan itxarongo dizut hamabiak arte.
39. Zein aukeratuko zenuke?  
a) Ilusino bat balu!  
b) Ilusiorik balu!  
c) Ilusio bat baleuka!  
d) Ilusioirik edukiko balu!
40. Zein da zuzena? "Iraultzak iraultzaren semeak irentsi ditu."  
a) Iraultzak irentsi egin ditu beraren haurrak.  
b) Iraultzak irentsi egin ditu berorren haurrak.  
c) Iraultzak irentsi egin ditu bere haurrak.  
d) Iraultzak irentsi egin ditu haren haurrak.



## EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK (2004KO EKAINA)

41. Non utzi zenituen paper horiek?  
a) Ez daukat ideiarik ere ez!  
b) Jakingo bazenukete, sikiera!  
c) Auskalo nondik daukadan!  
d) Nik al dakit, ba?
42. Zein da zuzena?  
a) Elkar hizketa.  
b) Hitzegin.  
c) Liburudenda.  
d) Aitona-amonak.
43. Langile haiek \_\_\_\_\_  
a) etxerik ez dituzte  
b) etxerik badituzte  
c) etxeak badituzte  
d) etxeak badute
44. Janzkeran eta itxuran ezagun zuen \_\_\_\_\_ onekoa zela.  
a) famili onekoa  
b) famili-onekoa  
c) familia onekoa  
d) familia-onekoa
45. Krisiak ekarri zuen industri lanpostuen \_\_\_\_\_ erantzuteko, enpresen \_\_\_\_\_ ekimenak bultzatu zituen Administrazioak.  
a) suntsipenari, sustapenerako  
b) sustapenari, sendotzeko  
c) sendotzeari, suntsipenetako  
d) sustraitzeari, soiltzerako
46. Zein da zuzena?  
a) Gure ama 1931eko otsailaren 20an jaio zen.  
b) Gure ama 1931ko otsailak 20an jaio zen.  
c) Gure ama 1931ko otsailaren 20an jaio zen.  
d) Gure ama 1931ko otsailak 20ean jaio zen





## EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK (2004KO EKAINA)

47. Zein ez da zuzena puntu eta komaren erabilerari dagokionez?
- Honako hauek etorri ziren: Txomin, harakina; Patxi, okina; Pako, tabernaria; eta Peru, zurgina.
  - Batzuk biziro maite ditugu; beste batzuk epelkiro; beste zenbait, berriz, bost axola zaizkigu.
  - Hitzaldia esaldi honekin amaitu zuen; Ongi esanak ongi hartu eta gaizki esanak barkatu.
  - Ez dute gaur amaituko, ez; bihar amaituko dute.
48. "Joxe ospitalera eraman dute. HIESak jota ez badago!" Hau da, \_\_\_\_\_
- uste dut mutil hori HIESak jota dagoela.
  - zalantzarik gabe mutil hori HIESak jota dago.
  - ez dut uste mutil hori HIESak jota dagoenik.
  - mutil hori ez dago inola ere HIESak jota.
49. Zein da zuzena?
- Jose Luis Alvarez Enparantza:Txillardegia izengoitiz, 1929-an jaio zen.
  - Jose Luis Alvarez Enparantza(Txillardegia, izengoitiz) 1929ean jaio zen.
  - Jose Luis Alvarez Enparantza, "Txillardegia" izengoitiz,1929an jaio zen.
  - Jose Luis Alvarez Enparantza, Txillardegia izengoitiz, 1929. an jaio zen.
50. "Patxik ordaindu duela afaria! -Bai, bere urtebetetzea zen. -Banengoen ba!" Hau da, \_\_\_\_\_
- ni ere han nengoen.
  - horren susmoa nuen.
  - hala ere, ez dut sinesten.
  - zer lastima ni han ez izatea.



## EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK (2004KO EKAINA)

|    |    |    |    |    |
|----|----|----|----|----|
| 1  | 11 | 21 | 31 | 41 |
| 2  | 12 | 22 | 32 | 42 |
| 3  | 13 | 23 | 33 | 43 |
| 4  | 14 | 24 | 34 | 44 |
| 5  | 15 | 25 | 35 | 45 |
| 6  | 16 | 26 | 36 | 46 |
| 7  | 17 | 27 | 37 | 47 |
| 8  | 18 | 28 | 38 | 48 |
| 9  | 19 | 29 | 39 | 49 |
| 10 | 20 | 30 | 40 | 50 |



## EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK (2004KO EKAINA)

### 2. ARIKETA: IRAKURRIAREN ULERMENA

**Honako testu honi buruzko 10 galdera dituzu testuaren amaieran. Galdera bakoitzak lau erantzun ditu aukeran. Aukera ezazu erantzun zuzen bakarra eta amaieran dagoen taulan adieraz ezazu hari dagokion letra. Ez da punturik kenduko erantzun okerrengeatik.**

#### ZIENTZIAREN ETA TEKNOLOGIAREN GARAIPENA

Behin eta berriz esan dugun gisa, hemen aztertzen ari garen mende hau izan da zientziaren aurrerapenaren mendea. Eta zientziak aurrera egin duela diogunean, esan nahi dugu zinez gure bizitza erdiz erdi zeharkatu duten ondoko hiru gai hauek izan dituela aztergai, horietatik direla mende honen aurrerapenaren ispilu eta sinbolo: atomoa, genea, konputagailua. Horiek biltzen dute, uste dugun baino neurri handiagoan, mende horren historia aberatsa eta horiek dira ehun urte horien eskutrea<sup>1</sup>. Ezin dugu XX. mendean hitz egin, ezin dugu ia-ia ezer ere irudikatu mende horretaz, atomoaren, genearen eta konputagailuaren inguruan gertatu diren aurrerapenak ahaztu edo bigarren mailan uzten baldin baditugu. Etorkizunak ikusiko gaitu materia aldatzen eta osagai berriak sortzen, ingeniariak atomikoari esker. Bizitza aldatzeko gai izango gara, ingeniariak genikoari esker, eta konputagailuak lagunduko digu adimenaren beraren mekanismo ezkutatuak ere hobeki ulertzen.

XX. mendeak ikusi du espezializazioaren garapena, gure inguruko gauza guztiak gero eta txikiago egin eta horretaz jabetzeko gai diren espezialisten ordua. Orain, aldiz, behin pieza horiek guztiak aztertu ondoren, atalak eta zatiak elkarren artean behar bezala uztartzeko gai izango diren oro jakitunak<sup>2</sup> beharko ditugu, nahiz joan-etorriko bidaia hau oso luzea den: teknologiaren muga fisikoak ez dakigu oraindik non diren. Berezitasunetik diziplinartekotasunera. XX. mendeak erakutsi digu jakitearen erabilgarritasuna, zientziaren berezko, eta ez diru edo ekonomia kontuetan oinarritutako, ontasuna. Eta nola izan da posible zientziak eta teknologiak horrela aurreratzea? Anitz jendeak uste du zientziak eta teknologiak aurreratzen duela zientzialariak horretara jartzen direnean bakarrik, hau da, buruan dituzten asmakizunak tresnerietan gauzatzera jartzen direnean. Baina hori ez da horrela eta ez da inoiz ere horrela izan. Zientziak itsu-mutsuka<sup>3</sup> aurreratzen du askotan, galdera baten erantzunak beste hainbeste erantzun gabeko galderak erakutsian utziz, eta zientzialariak ikerketa batekin gora eta behera ari direla, uste gabe<sup>4</sup> pentsatzen ez dutena aurkitzen dute zenbaitetan, zuzenean ikertzen dutenarekin loturik ez dagoena, baina izugarritzko aplikazio praktikoak izan ditzakeena gure eguneroko bizitzan. Hain erraza balitz, bada, bide jakin bat segitzea! Ez da hala. Unibertsitateetan eta laborategietan egiten badira aurrerapenak, eta gizarteak aitzinatzen baldin badu, ez da gertatzen hori ikertzaileen kezkarik handiena gauza praktikoak sortzea delako. Ez. Nola egongo gara unibertsitateetan gauza praktikoez bakarrik arduratzen, gaur egun Siemens bezalako enpresa batek egiten dituen produktuetatik % 75 ez bazen ezagutu ere egiten orain dela bost urte? Zientziaren emaitzak ezin dira alde aurretik jakin, ezin dira alde aurretik ikusi.

<sup>1</sup> "eskutada"

<sup>2</sup> "orojakileak"

<sup>3</sup> "itsumustuka, itsu-itsuan"

<sup>4</sup> "ustekabea"



## EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK (2004KO EKAINA)

Gizarteek aurreratu dute ikertzaileek presarik izan ez dutenean bakarrik, gauzak mantso-mantso eta patxadaz ikertu dituztenean, beti zalantza eta zehaztasuna, biak batera, mahai gainean jarriz. Zientzia ez doa aurrera "hau" edo "bestea" bakarrik egitea eskatzen baldin bazaio. Zientziak Galileo baten edo Newton baten askatasuna behar du, eta askatasunak bakarrik irekitzen ditu bide zabalak, pentsatu ezin ziren gauza berriak denon eskura jarriz. Oinarrizko ikerkuntzatik atera dira hainbeste eta hainbeste aplikazio praktiko, durundi magnetikoaren bidezko irudiaren teknikak, esate baterako, oso ongi erakusten duen gisa. Ez zen inor ere horren asmatzen jarri, eta hala jarri izan balitz ere, segur aski ere, ez zuen inoiz ere asmatuko. Beste zerbaiten bidetik etorri zen asmakizun hori. Joseph John Thomsonek elektroia aurkitu zuen Cambridgeko Cavendish Laborategian 1897an, eta horregatik eman zioten Nobel saria urte batzuk geroago. Izpi katodikoen izaerari buruzko urteetako eztabaida luze baten erantzun bila ari zelarik aurkitu zuen elektroia, laborategiaren kanpoko aldean jendea eramateko zaldi gurdiak hara-hona zebiltzan urte haietan. Nola pentsa zezakeen berak XX. mendea bukatu orduko, elektroiarekin erlazionatutako industria munduko produktu gordinaren ehuneko hamar hurbil izango zela? Hartako, unibertsitateak loturak behar ditu inguruko enpresekin, baina ezin da inoiz ere haien mende izan, ezin da haien lantegi merke bihurtu. Unibertsitateak beste balio batzuk ditu, hain epe laburrekoak ez direnak eta luzera begira daudenak. Eta unibertsitateetan bat egin dute joan den mendean esperimenteren espezializazioak eta modelo matematikoen formulazio abstraktuak. Pedro M. Etxenike euskal fisikariak dioen gisa, gaur egungo zientzia modernoa da, hain zuzen ere, elkarketa horren ondorio eta emaitza ikusgarria, fisika eta matematikaren elkarlana, Arkimedes greziarrarekin ere bere garaian gertatu zen gisa.

Gizakiak bere osotasunean burutu duen kultura-lanik gaitzena da zientziaren garapena. Zientziak eta teknologiak aurreratzen duten neurrian aurreratzen da gizartearen bizitza kalitatea bera ere. Eta zientzia egiten denean, zientziak aurrerapausoak egin nahi baditu, berdintasunaren kontuak ahaztu behar ditugu: talde berezien eta hobereenen lana bultzatu behar da, burokraziak gehienetan agintzen duenaren kontra, askatasuna eman beharrean beti ibiliko baita zientzia merkatuak dituen berehalako beharren azpian jarri nahian. Horrela ikasi dugu gure munduaren ezagutza ez dela maila batekoa, eta jakintza halako atal desberdinetan egituratzen dela, liburutegi batean dauden apalategien antzera. Apalategi bakoitza aurrekoaren segida da, baina, aldi berean, bere buruaren jabe neurri batean bederen. Materiaren aberastasuna aztertuz, ezaugarri berriak aurkitzen ditugu beste batzuetara bil daitezkeenak, baina hauetatik nahitaez erakar ez daitezkeenak. Lord Kelvin Royal Societyko presidentek ez zuen ametsetan ere ikusten handik urte batzuetara etorriko zitzaiguna: "Aireak baino pisu handiagoa duen zerbait ez duzu inoiz ere hegaz egiten ikusiko" zioen, zalantza izpirik gabe. Ez ote zuen inoiz ere harririk bota? Mendea hasi baino hiru urte lehenago, 1897an, Felix Hoffman eta Hermann Dreser-ek asmatu zuten ehun urte pasatu ondoren oraingoz osasun kontuetan arrakasta ikaragarria duen eta egunero erabiltzen dugun gauza txiki eta zuri bat: aspirina. Mendea amaitzear zela jarri zituen Léon Gaumont-ek elkarrekin lanean bat eginik irudia eta gramofonoa biak batera: orduantxe egin ziren lehenbiziko urratsak soinudun zinema sortzeko.

Pello Salaburu  
*XX. Mendearen Argi-itzalak*  
Alberdania 2001



## EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK (2004KO EKAINA)

●

### 1) Zer dio testugileak?

- a) Atomoa, genea eta konputagailua asmakizun garrantzitsuak dira baina hiruretatik konputagailua da garrantzitsuena, adimenaren mekanismo ezkutua hobeki ulertzen lagunduko digulako.
- b) Atomoa, genea eta konputagailua XX. mendearen aurrerapenaren sinbolo bihurtu dira, nahiz eta gure bizitzan eragin handirik izan ez duten.
- c) Atomoaren, genearen eta konputagailuaren inguruan bakarrik gertatu dira aurrerapenak XX. mendeko zientzian.
- d) Atomoaren, genearen eta konputagailuaren inguruan gertatu diren aurrerapenak laburbiltzen dute XX. mendeko historiaren eta kulturaren ekarpena.

### 2) Zer dio testuak espezializazioari buruz?

- a) Espezializazioaren garapena seguruenik XXI. mendetik aurrera etorriko dela.
- b) Zientziaren espezializazioa lortu ahal izateko, aurrerantzean oro jakitunak beharko ditugula.
- c) XX. mendean gertatu dela espezializazioaren garapena, eta orain, XXI. mendean, diziplinartekotasunaren garaia iritsi zaigula.
- d) XX. mendea espezializazioaren garaia izan dela, baina orain espezialistak soberan daudela eta oro jakitunak bakarrik behar direla.

### 3) Zientziak eta teknologiak aurrera egiten dute...

- a) zientzialariek beren teoriak errealitatera edo praktikara eramateko erabakia hartzen dutenean.
- b) bide jakin bati jarraitzen diotelako zientzialariek: bide horretan etsi gabe lanean jardunez gero, beti lortzen dira emaitzak.
- c) ikertzaileen kezkarik handiena gauza praktikoak sortzea delako.
- d) uste gabean sortzen direlako ikerketa-lerro berriak.

### 4) Adierazpen hauetatik zein da egia, testuan esaten denaren arabera?

- a) Ikerkuntza aplikatuak izan behar du lehentasuna oinarrizko ikerkuntzaren aldean.
- b) Jende askok besterik pentsatzen badu ere, askotan, oinarrizko ikerkuntza izan da aurkikuntza praktiko askoren eragile zuzena.
- c) Durundi magnetikoaren bidezko irudiaren teknika da ikerkuntza planifikatuaren emaitza adierazgarrienetako bat.
- d) Askatasuna eta patxada ez dira baldintza beharrezkoak zientziak eta gizarteek modu egokian aurrera egin dezaten.

### 5) Adierazpen hauetatik zein da egia, testugileak dioenaren arabera?

- a) Planifikaturiko ikerkuntza baten ondorioz aurkitu zuen Joseph John Thomsonek elektroia.
- b) Izpi katodikoaren inguruko eztabaida luzeagatik eman zitzaion Joseph John Thomsoni Nobel saria.
- c) Aldi luzea igaro zen Joseph John Thomsonek elektroia aurkitu zuenetik Nobel saria eman zioten arte.
- d) Beste gai bati loturiko ikerketa baten ondorioz aurkitu zuen Thomsonek elektroia.



## EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK (2004KO EKAINA)

### 6) Zer dio testuak unibertsitatearen eta enpresaren arteko harremanez?

- a) Zientzia garatuko bada, unibertsitateak mendekotasunezko loturak behar ditu inguruko enpresekin.
- b) Unibertsitateak, luzera begirako balioak dituenek, ez du inongo loturarik behar inguruko enpresekin.
- c) Bien arteko lotura beharrezkoa da, baina unibertsitatea enpresaren mende izan gabe.
- d) Epe laburra dago unibertsitatearen eta enpresen arteko lotura gauzatzeko, eta berehala egin behar da.

### 7) Gaur egungo zientzia modernoa...

- a) Esperimentuen espezializazioaren eta modelo matematikoen elkarketaren emaitza da.
- b) Pedro M. Etxenikeren ustez, gaur egungo zientzia da modernoa.
- c) Unibertsitatea modernoa da esperimentuak egiten dituztenak eta formula abstraktuak sortzen dituztenak bertan elkarrekin direlako.
- d) Aurreko mendeko unibertsitateak eta mende honetakoak, elkarrekin, ondorio eta emaitza ikusgarriak izan dituzte, batez ere zientzian.

### 8) Zer dio testuak zientziaren garapenez?

- a) Gizakiaren kultura-lan handiena dela.
- b) Gizakiaren kultura-lan ilun eta ezkutuen dela.
- c) Gizakiaren kultura-lan isilena dela.
- d) Gizakiaren kultura-lan ezagunena dela.

### 9) Zein da testugilearen iritzia?

- a) Administrazioak berdintasunaren irizpidearen arabera tratatu behar ditu zientzialari-talde guztiak.
- b) Burokrazia berdintzailea onuragarria izan ohi da.
- c) Zientziak eta merkatuak elkarren eskutik joan behar dute.
- d) Administrazioak, batik bat, zientzialari-talde onenen egitasmoei eman behar die lehentasuna.

### 10) Zer dio testuak hegazkinei buruz?

- a) Ezinezkoa dela aireak baino pisu handiagoa duen ezerk hegaz egitea, Lord Kelvinen arabera.
- b) Lord Kelvinen arabera, aireak baino pisu handiagoa duen arren, hegazkina gai dela hegaz egiteko.
- c) Lord Kelvinek inoiz ez ziela harririk bota hegazkinei.
- d) Hegazkinaren moduko aurkikuntza bat egitea zela Lord Kelvinen ametsa.



**EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK  
(2004KO EKAINA)**

|   |   |   |   |    |
|---|---|---|---|----|
| 1 | 2 | 3 | 4 | 5  |
| 6 | 7 | 8 | 9 | 10 |



## EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK (2004KO EKAINA)

### IDAZLANA

Egingo duzun idazlanak 250 hitz izan behar du gutxienez. Mesedez, boligrafoz idatzi eta gogoan izan azterketa egiteko duzun denbora. Amaitzean, eman azterketa osoa aztertzaileei. Idazlana egiteko A edo B aukeratu eta aukera horietako bat garatzeko, azpian dituzun gaitako bat aukeratu behar duzu: nahi duzuna, zerrenda osoan; baina ezinbestekoa da gai horri ongi lotzea idazlana garatzean.

A) **Unibertsitateko** lankide batek laguntza eskatu dizu. Irakasle talde bat **aldizkari bat** ari da argitaratzen unibertsitateko ikasleentzat, baina artikulua faltan egoten dira maiz. Hori dela eta, zure jakintza-arloko gairen baten berri eman dezazun eskatu dizute artikulua batean. Gogoan izan ikasleentzat ari zarela idazten, zabalkunde lanean alegia (ez testu akademikoa prestatzen). Hala nahi izanez gero, zeure iritzia ere plazara dezakezu, aukeratu duzun gaiaren inguruan.

B) **Eskolako apunteak** prestatzen ari zara eta gai baten inguruko azalpenak idatziz eman nahi dituzu, ikasleen eskura jartzeko. Gai bat orokorki azaldu eta hainbat zehaztasun emango dituzu, edo gai horren azpiko gai zehatzen bat polikiago aztertuko duzu, ikasleei azalpen argiak emateko.

| ARLOA                  | GAIAK                                 |  |
|------------------------|---------------------------------------|--|
| Arkitektura            | Egoitza auzoen diseinua               | Arkitektura tradizionala                     |
| Artea                  | XX. mendeko artea                     | Berpizkundeko artea                          |
| Biologia               | Ekosistemak                           | Herentzia biologian                          |
| Ekonomia               | Sistema kapitalista                   | Burtsa                                       |
| Filologia              | Hizkuntza erromanikoak                | Lexikografia: hiztegiak'                     |
| Filosofia              | Teoria zientifikoaren egitura         | Gaurko filosofoak                            |
| Fisika                 | Newtonen legeak                       | Optika                                       |
| Geografia eta Historia | Erromatar inperioa                    | Paisaiaren aldaketa giza ekintzaren ondorioz |
| Geologia               | Glaziarren dinamika                   | Estratigrafia                                |
| Gizarte zientziak      | Anarkismoa                            | Demografia dinamikoa                         |
| Heziketa fisikoa       | Beroketa                              | Heziketa fisikoa hezkuntza sisteman          |
| Informatika            | Birus informatikoak                   | Datu-baseak                                  |
| Informazioa            | Euskarazko hedabideak gaur            | Emakumearen irudia publizitatean             |
| Kimika                 | Metalurgia                            | Atomoen arteko loturak                       |
| Matematika             | Multzoen teoria                       | Estatistika                                  |
| Osasuna                | Bitaminak                             | Higienea eta bizimodu osasuntsua             |
| Pedagogia              | Curriculumaren oinari soziokulturalak | Lanbide heziketa                             |
| Psikologia             | Piaget                                | Psikologia klinikoa                          |
| Teknologia             | Meatzaritza                           | Itsasoan orientatzeko sistemak               |
| Zuzenbidea             | Konstituzioa                          | Zuzenbide estatua                            |





Universidad Euskal Herriko  
del País Vasco Unibertsitatea  
**EUSKARA ZERBITZUA**

**EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK  
(2004KO EKAINA)**

**IDAZLANAREN IZENBURUA (GAIA):**



**EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK  
(2004KO EKAINA)**



Universidad Euskal Herriko  
del País Vasco Unibertsitatea  
**EUSKARA ZERBITZUA**

## **EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK (2004KO EKAINA)**



## EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN AGIRIKO PROBAK (2004KO EKAINA)

### EZ IDATZI EZER ORRIALDE HONETAN AZTERTZAILEEK ERABILTZEKO ORRIA

#### Zuzenketa-orria

Aukera anitzeko galderen proba (markatu biribil batekin erantzun zuzenen kopurua)

|    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |
|----|----|----|----|----|----|----|----|----|----|
| 1  | 2  | 3  | 4  | 5  | 6  | 7  | 8  | 9  | 10 |
| 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 | 18 | 19 | 20 |
| 21 | 23 | 23 | 24 | 25 | 26 | 27 | 28 | 29 | 30 |
| 31 | 32 | 33 | 34 | 35 | 36 | 37 | 38 | 39 | 40 |
| 41 | 42 | 43 | 44 | 45 | 46 | 47 | 48 | 49 | 50 |

Irakurmena (markatu biribil batekin erantzun zuzenen kopurua)

|   |   |   |   |   |   |   |   |   |    |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|----|
| 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|----|

Idazlana (markatu emaitza biribil batekin)

|     |        |
|-----|--------|
| GAI | EZ GAI |
|-----|--------|

Oharrak